

BESTELAKO XEDAPENAK

ZIENTZIA, UNIBERTSITATE ETA BERRIKUNTZA SAILA

3903

AGINDUA, 2024ko uztailaren 26koa, Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako sailburuarena, zeinaren bidez baimena ematen baita Euneiz Unibertsitatearen unibertsitate-titulu ofizial batzuk ezartzeko.

Martxoaren 22ko Unibertsitate Sistemaren 2/2023 Legearen 8.2 artikulua xedatzen duenaren arabera, unibertsitate-titulu ofizialei dagokienez, honako hauek beharko ditu titulazio bat emateko ekimenak: autonomia-erkidego eskudunak aldeko txostena eman beharko du aurretik dena delako unibertsitate-titulu ofiziala ezartzeko beharrian eta bideragarritasun akademiko eta sozialaz; dagokion kalitate-agentziak aldeko txostena eman beharko du ikasketa-planaren memoriaren kalitatea ziurtatzearen ondorioetarako; Unibertsitateen Kontseiluak ikasketa-plana ziurtatu beharko du eta autonomia-erkidego eskudunak ezarpena baimendu beharko du.

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legearen 51. artikuluan arautzen da nola egokitu Goi Hezkuntzako Europar Eremura. Unibertsitate-gaietan eskumena duen sailak eta unibertsitateek ikasketa-planetako eta kreditu- eta balorazio-sistemetakoa nahitaezko egokitzapenak bultzatuko dituzte, eta, horiekin batera, behar diren gainerako neurriak hartuko dituzte euskal unibertsitate-sistema goi-mailako irakaskuntzako Europako sisteman sartzeko eta titulazioaren Europako gehigarriaren diploma emateko.

Ikasketa ofizialak nola ezarri araututa dago xedapen hauetan: Unibertsitate-irakaskuntzen antolaketa eta irakaskuntza horien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen duen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuan eta Gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak ezartzeari eta kentzeari buruzko abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuan.

Irakaskuntza ofizialen ikasketa-planak ziurtatzeko prozedura araututa dago 822/2021 Errege Dekretuaren 26. artikuluan. Haren 3. puntuan ezartzen duenez, autonomia-erkidegoek, beren lurralde-eremuko unibertsitate-programazioari eta titulazio ofizialen mapa antolatzeari buruzko eskumenak baliatuz, unibertsitate-titulu ofiziala ezartzeko beharrian eta bideragarritasun akademiko eta sozialari buruzko txosten bat egin beharko dute, ziurtatzeko prozedura hasi aurretik. Prozedura honetan baimenduko diren titulazioak –Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariak ezartzeko proposatuak– aldeko txostena jaso dute, beharrian eta bideragarritasun akademiko eta sozialari buruzkoa.

Abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren 15. artikuluan dago araututa zer prozedura bete behar den gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezartzeko baimena lortzeko. Artikulu horren arabera, Unibertsitate Kontseiluak horiek egokiak direla ziurtatzen duen ebazpena eman ondoren, agindu-proposamena prestatu behar du Hezkuntza Sailak, gradu, master eta doktoregoko unibertsitate-irakaskuntza ofizialak ezartzea baimentzeko.

Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziak edo ebaluazio-agentzia eskudunak, 822/2021 Errege Dekretuaren 26 artikuluen 5., 6. eta 7. apartatuek xedatutakoarekin bat etorritik, aldeko ziurtapen-txostena egin du Euneiz Unibertsitateak aurkeztutako graduako unibertsitate-titulu ofizialak ezartzeko proposamenei buruz; eranskinean daude zerrendatuta ikasketa horiek.

2024ko abuztuaren 9a, ostirala

Unibertsitate Kontseiluak ebatzi du aldeko ziurtapena ematea eranskinean zerrendatutako graduako unibertsitate-ikasketa ofizialei dagozkien ikasketa-planei.

Hori dela eta, Gradu, master eta doktorego tituluak lortzeko egin behar diren unibertsitate-ikasketa ofizialak nola ezarri eta kendu arautzen duen abenduaren 19ko 274/2017 Dekretuaren 15. artikulua aplikatuz, proposamena Euskadiko Unibertsitate Kontseiluari aurkeztu zaio, 2024ko uztailaren 24ko bilkuran, jakitun egon dadin eta txostena egin dezan.

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Baimena ematea eranskinean zerrendatzen diren gradu eta masterreko ikasketa ofizialak ezartzeko.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu hau Unibertsitate Politikako Biltzar Nagusiari eta Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioari jakinaraztea, azken horrek proposamena Gobernuari igor diezaion tituluaren ofizialtasuna ezartzeko, Unibertsitate, Zentro eta Tituluaren Erregistroan (RUCT) inskriba dezan eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara eman dezan.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Unibertsitate-titulu ofizialek beren tituluaren ziurtapena berrituko dute Unibertsitate-irakaskuntzen antolaketa eta irakaskuntza horien kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen irailaren 28ko 822/2021 Errege Dekretuaren 34. eta 35. artikuluek xedatutakoarekin bat.

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko uztailaren 26a.

Zientzia, Unibertsitateak eta Berrikuntzako sailburua,
JUAN IGNACIO PÉREZ IGLESIAS.

2024ko abuztuaren 9a, ostirala

ERANSKINA

GRADUKO UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALAK EZARTZEA

Kodea	Tituluaren izena	Adarra
1500222	Datuen Zientzian Graduatua	Ingeniaritza eta Arkitektura
1500223	Kirol Kudeaketan Graduatua	Gizarte eta Lege Zientziak